

HITZARMENAK ZUZEN ERREDAKTATZEKO IRADOKIZUNAK

HIZKUNTZAK

UPV/EHUren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez (Estatutuen 8. artikularen arabera), sinatzen diren hitzarmenak bi hizkuntzetan egongo dira idatzita. Dena dela, aski izango da tramitaziorako Errektoreordetzari igortzen zaion proposamena hizkuntza horietako batean erredaktatuta egotea eta, behar izanez gero, Errektoretzak berak eskatuko dio itzulpen zerbitzuari beste hizkuntza ofizialera itzultzeko.

Horretarako, gure gomendioa da testua bi zutabetan aurkeztea. Ezkerrekoa euskarazko testuarentzat izango da eta ezkerrekoa, berriz, gaztelaniazkoarentzat, eskaintzen dizuegun hitzarmen ereduan erakutsi bezala.

IDENTITATE KORPORATIBOA

UPV/EHUko erakunde irudiaren eskuliburuak jasotzen duenez, ondokoa hartu behar da kontuan:

- Hitzarmenaren testuan unibertsitatea aipatzean, saiatu behar da **irizpide bera** erabiliz egitea, hau da, modu berean izendatu behar da testu osoan.
- **Izen ofizialaren erabilera zuzena:**
 - Unibertsitatea aipatzen den lehenengo aldian izen ofiziala erabili behar da: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - Ondorengoetan, erabiltzen ari den hizkuntzaren izen osoaz baliatu ahal da (esaterako, euskaraz ari bada, Euskal Herriko Unibertsitatea), edo UPV/EHU laburdurak.

ZUZENKETA

Azkenik, gogorarazi behar da sortzen diren hitzarmenak organo desberdinei (barrukoei zein kanpokoei) aurkeztu beharreko dokumentuak direla, horiek onar eta, geroago, sina ditzaten. Ondoren, UPV/EHUren hitzarmenen erregistroan sartuko dira. Hori dela eta, gomendagarria da testua guztiz zuzen erredaktatuta eta berraztertuta egotea, ortografia, gramatika eta antzeko akatsik egon ez dadin.